Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko maiatzaren 30a, astelehena — 101 — Lunes, a 30 de mayo de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## «KABIA» FORU ORGANISMO AUTONOMOA

*Iragarkia*

Kabia foru organismo autonomoko Gobernu Batzordeak, honako erabaki hau hartu du 2022ko maiatzaren 25eko ohiko bileran:

«Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bateginak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, 70.1 artikuluan ezartzen du ezen, giza baliabideen beharrizanak daudenean, eta, horretarako aurrekontuko diru izendapena egonda, langile berriak sartzea beharrezko denean, enplegu publikoko eskaintza egin behar dela.

Enplegu publikoko eskaintzari dagokionez, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak 20.Bat.1 artikuluan ezartzen du ezen, sektore publikoan harreman mugagabea duten langile berriak sartzeko, artikulu horretan adierazitako birjarpen tasa aplikatuko zaiela, hargatik eragotzi gabe enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 14/2021 Errege Lege Dekretuaren ondoriozko egonkortze-prozesuak.

Errege lege-dekretu hori baliozkotu eta lege-proiektu gisa izapidetu ondoren, abenduaren 28ko 20/2021 Legea onartu zen, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa. Lege horrek 2.1. artikuluan, aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarri bat baimentzen du. Tasak barnean hartuko ditu administrazio publikoetako lanpostuen zerrenden, plantillen edo giza baliabideak antolatzeko beste moduren baten barruan egon zein ez, eta aurrekontuan diruz hornituta egonik, 2020ko abenduko 31 baino lehenagoko hiru urteetan aldi baterako eta etenik gabe okupatuta egon diren egiturazko lanpostuak. Lanpostu horietara oposaketa-lehiaketaren sistemaren bidez sartuko da.

Era berean, abenduaren 28ko 20/2021 Legeak seigarren xedapen gehigarrian ezartzen du aipatutako baldintzak bete eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aldi baterako eta etenik gabe beteta egon diren lanpostuak lehiaketa-sistemaren bidez deituko direla. Zortzigarren xedapen gehigarrian adierazten du, gainera, seigarren xedapen gehigarrian jasotako egonkortze-prozesuek beren deialdietan sartuko dituztela egiturazko lanpostu hutsak, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko izaera horretako harremana duten langileek aldi baterako betetzen dituztenak.

Bestalde, abenduaren 28ko 20/2021 Legeak ezartzen du egonkortze-prozesu berria artikulatzen duen enplegu publikoaren eskaintza onartu eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko dela 2022ko ekainaren 1a baino lehen, eta lanpostu horiek betetzeko hautaketa-prozesuen deialdiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratu beharko direla, eta prozesu horiek 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko direla.

Horren arabera, akordio honen xedea da aldi baterako enplegua egonkortzeko plazei dagokien Kabia foru organismo autonomoaren lan-eskaintza publikoa onartzea, abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren arabera.

Kabiak ez du lanpostuen zerrenda bateratu bat, hori dela eta Kabiak eta egoitzak, eta dagokionean eguneko zentroak, Gipuz-

## ORGANISMO AUTÓNOMO FORAL «KABIA»

*Anuncio*

La Junta de Gobierno del organismo autónomo foral Kabia en la sesión ordinaria celebrada el 25 de mayo 2022 ha adoptado el siguiente acuerdo:

«El texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, establece en su artículo 70.1 que las necesidades de recursos humanos, con asignación presupuestaria, que deban proveerse mediante la incorporación de personal de nuevo ingreso serán objeto de la oferta de empleo público.

En relación con ello, la Ley 22/2021, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2022, en su artículo 20.Uno.1 establece que la incorporación de personal de nuevo ingreso con una relación indefinida en el sector público se sujetará a las tasas de reposición de efectivos recogidos en dicho artículo, sin perjuicio de los procesos de estabilización derivados del Real Decreto-ley 14/2021, de 6 de julio, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

Dicho Real Decreto-ley, tras su convalidación y posterior tramitación como proyecto de ley, derivó en la aprobación de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, la cual en su artículo 2.1 autoriza una tasa adicional para la estabilización de empleo temporal que incluirá las plazas de naturaleza estructural que, estén o no dentro de las relaciones de puestos de trabajo, plantillas u otra forma de organización de recursos humanos que estén contempladas en las distintas Administraciones Públicas y estando dotadas presupuestariamente, hayan estado ocupadas de forma temporal e ininterrumpidamente al menos en los tres años anteriores a 31 de diciembre de 2020, a las cuales se accederá mediante el sistema de concurso-oposición.

Asimismo, la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, en su disposición adicional sexta establece que aquellas plazas que, reuniendo los requisitos mencionados, hubieran estado ocupadas con carácter temporal de forma ininterrumpida con anterioridad a 1 de enero de 2016 se convocarán por el sistema de concurso, y en su disposición adicional octava señala que, adicionalmente, los procesos de estabilización contenidos en la disposición adicional sexta incluirán en sus convocatorias las plazas vacantes de naturaleza estructural ocupadas de forma temporal por personal con una relación, de esta naturaleza, anterior al 1 de enero de 2016.

Por otro lado, la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, establece que la oferta de empleo público que articule el nuevo proceso de estabilización deberá aprobarse y publicarse en los respectivos diarios oficiales antes del 1 de junio de 2022 y que las convocatorias de los procesos selectivos para la cobertura de tales plazas deberán publicarse antes del 31 de diciembre de 2022, debiendo finalizar dichos procesos antes del 31 de diciembre de 2024.

De acuerdo con ello, el presente acuerdo tiene por objeto aprobar la oferta de empleo público del organismo autónomo foral Kabia correspondiente a las plazas de estabilización de empleo temporal según lo establecido en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre.

Kabia no dispone de una relación de puestos de trabajo unificada, por lo que las plazas incluidas en la oferta pública de em-

EK\CV GAO-I-2022-03503

koako Foru Aldundira eskualdatu aurretik kudeatu zituzten Udalek eta erakundeek onartutako lanpostuen zerrendetako ezaugarri eta baldintzak dituzte lan eskaintza publikoko plazek. Hori dela eta, plazen zerrendan erakunde horiek plaza bakoitzerako erabilitako izen desberdinak sartu dira. Bestetik, Oñatiko egoitzan lanpostu zerrendarik ez zegoenez, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren txostenaren arabera ezarri dira hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak. Azkenik, funtzio aldaketa dela eta, egokitze bat izan duten lanpostuen kasuan, funtzio aldaketaren ondorioz dauden ezaugarrien arabera egingo da deialdia.

Horrenbestez, sektoreko erakunde sindikal adierazgarrien ordezkariekin negoziatu eta adostu ondoren, Lehendakariak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Gobernu Batzordeak

ERABAKITZEN DU

*Lehena.* Aldi baterako enplegua egonkortzeko plazei dagokien Kabia foru organismo autonomoaren enplegu publikoko eskaintza onartzea, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren arabera. Eskaintza horrek erabaki honen I. eranskinean jasotako lanpostuak hartzen ditu barne.

*Bigarrena.* Ezartzea giza baliabideen plangintza neurri gisa, aldi baterako enplegua egonkortzeko enplegu publikoko eskaintzaren ondoriozko langileak hautatzeko deialdietan, honako hau: karrerako funtzionario izendatutako pertsonek edo laboral finko kontratatutakoek lanpostua gorde gabeko eszedentzia eskatzen badute, izan lanpostua jabetzan hartzeko unean edo izan abenduaren 28ko 20/2021 Legean aldi baterako enplegua egonkortzeko deitutako hautaketa prozesuen barruan beste lanpostu bat lortu ondoren, hutsik geratzen diren plazak esleitu ahal izango dira. Ondorio horietarako, Epaimahai Kalifikatzaileak karrerako funtzionarioak izendatzeko edo laboral finkoak kontratatzeko egindako proposamen osagarria erabiliko da.

*Hirugarrena.* Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, eta lehenengo puntuan adierazitako enplegu publikoko eskaintzaren laburpen bat *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean* argitaratzeko agindua ematea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete administrazioarekiko auzien Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkezteko Gobernu Batzorde honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.»

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut.

Donostia, 2022ko maiatzaren 25a.—Kabiako Gobernu Batzordeko idazkaria. (3503)

pleo tienen las características y requisitos de las relaciones de puestos de trabajo aprobadas tanto por Kabia y como por los ayuntamientos y los organismos que gestionaron las residencias y, en su caso, los centros de día antes de su traspaso a la Diputación Foral de Gipuzkoa. Por ese motivo, en la relación de plazas se incluyen las distintas denominaciones utilizadas para cada plaza por dichas entidades. Por otro lado, dado que en la residencia de Oñati no existe una relación de puestos de trabajo, se han establecido los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad según el informe de la Viceconsejería de Política Lingüística. Finalmente, en el caso de los puestos que hayan sido objeto de adaptación por modificación de funciones, la convocatoria se realizará incorporando dicha modificación.

Por todo ello, previa negociación y acuerdo con las personas representantes de las organizaciones sindicales más representativas del sector y a propuesta de la Presidenta, previa deliberación, en la Junta de Gobierno

ACUERDA

*Primero.* Aprobar la oferta de empleo público del organismo autónomo foral Kabia correspondiente a las plazas de estabilización de empleo temporal según lo establecido en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público. Dicha oferta comprende las plazas recogidas en el anexo I al presente acuerdo.

*Segundo.* Establecer como medida de planificación de recursos humanos en las convocatorias de selección de personal derivadas de la oferta de empleo público para la estabilización de empleo temporal que si las personas nombradas funcionarias de carrera o contratadas laborales fijas solicitan excedencia sin reserva de puesto en el momento de la toma de posesión o con posterioridad a causa de obtener otra plaza en el marco de los procesos selectivos convocados para la estabilización de empleo temporal contemplados en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, se podrá proceder a adjudicar las plazas que queden vacantes. A tal efecto se utilizará la propuesta de nombramiento complementaria de personal funcionario de carrera o de contratado/a laboral fijo/a realizada por el Tribunal Calificador.

*Tercero.* Ordenar la publicación del presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y un extracto de la oferta de empleo público referida en el punto primero en el *Boletín Oficial del País Vasco*.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

Y para que conste, extiendo la presente certificación.

San Sebastián, a 25 de mayo de 2022.—La secretaria del Consejo de Gobierno de Kabia. (3503)

EK\CV GAO-I-2022-03503

I. ERANSKINA / ANEXO I

ENPLEGU PUBLIKOKO ESKAINTZA - BEHIN BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEA /
OFERTA DE EMPLEO PÚBLICO - ESTABILIZACIÓN DE EMPLEO TEMPORAL

LAN KONTRATUPEKO LANGILEAK / PERSONAL LABORAL

| *Plaza* | *Taldea/Azpitaldea Grupo/Subgrupo* | *Guztira Total* | *Derrigorrezko H.E. duten plaza kopurua N.º de plazas con P.L. preceptivo* | *Lehiaketa Concurso* | *Lehiaketa-oposizioa Concurso-oposición* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | *Txanda librea Turno libre* | *Txanda librea Turno libre* | | |
| | | | | | | *Desgait. gordeak Reserva disc.* | |
| | | | | *Izaera orokorra Acceso general* | *Izaera orokorra Acceso general* | *Best. Otras* | *Intel. Intel.* |
| Langileen kudeaketa arloko arduraduna<br>Responsable área de gestión de personal | A1 | 1 | 1 | | 1 | | |
| Psikologoa (% 27)-Dinam. Sozio-kulturala (% 48)<br>Psicólogo/a (27 %)-Dinamizador/a socio-cultural (48 %) | A1 | 1 | 1 | | 1 | | |
| Ekonomia-administrazio teknikaria-egoitzaburua<br>Técnica/o Administración-Economía-jefa/e de residencia | A2 | 1 | 1 | | 1 | | |
| Erizain asistentziala/ Erizain koordinatzailea<br>Enfermera/o asistencial/ Coordinador/a de enfermería | A2 | 1 | 1 | 1 | | | |
| Erizaina/Teknikari sozio sanitarioa/Egoitzako EDU<br>Enfermera/o/Técnica-a sociosanitaria/o/DUE residencia | A2 | 6 | 6 | 5 | 1 | | |
| Zerbitzu gainbegirale orokorra<br>Supervisor/a general de servicios | A2 | 1 | 1 | | 1 | | |
| Administraria<br>Administrativa/o | C1 | 4 | 4 | 1 | 2 | 1 | |
| Administrari laguntzailea<br>Auxiliar administrativa/o | C2 | 1 | 1 | 1 | | | |
| Osasun-laguntzaile gainbegiralea<br>Supervisor/a auxiliar sanitario | C2 | 2 | 2 | 2 | | | |
| Solairuko arduraduna<br>Encargada/o de planta | C2 | 1 | 1 | 1 | | | |
| Sukaldaria<br>Cocinera/o | C2 | 2 | 1 | 2 | | | |
| Sukalde arduraduna<br>Encargada/o de cocina | C2 | 1 | 1 | 1 | | | |
| Zaintzailea/Egoitzako laguntzailea/Klinika laguntzailea/Osasun laguntzailea<br>Cuidador-a/Auxiliar de residencia/Auxiliar de clínica/Auxiliar sanitario/a | C2 | 49 | 44 | 49 | | | |
| Garbiketa gainbegiralea<br>Supervisor/a limpieza | E | 1 | 1 | 1 | | | |

EK\CV GAO-I-2022-03503

| Plaza | Taldea/Azpitaldea Grupo/Subgrupo | Guztira Total | Derrigorrezko H.E. duten plaza kopurua N.º de plazas con P.L. preceptivo | Lehiaketa Concurso | Lehiaketa-oposizioa Concurso-oposición | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Txanda librea Turno libre | Txanda librea Turno libre | | |
| | | | | | | Desgait. gordeak Reserva disc. | |
| | | | | Izaera orokorra Acceso general | Izaera orokorra Acceso general | Best. Otras | Intel. Intel. |
| Garbitzailea/Garbitzaile-zerbitzaria Limpiador/a/ limpiador/a-camarero/a | E | 14 | 11 | 14 | | | |
| Harreragilea/Harreragile laguntzailea Recepcionista/Auxiliar recepcionista | E | 2 | 1 | 2 | | | |

LANGILE FUNTZIONARIOAK / PERSONAL FUNCIONARIO

| Plaza | Taldea/Azpitaldea Grupo/Subgrupo | Guztira Total | Derrigorrezko H.E. duten plaza kopurua N.º de plazas con P.L. preceptivo | Lehiaketa Concurso | Lehiaketa-oposizioa Concurso-oposición | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Txanda librea Turno libre | Txanda librea Turno libre | | |
| | | | | | | Desgait. gordeak Reserva disc. | |
| | | | | Izaera orokorra Acceso general | Izaera orokorra Acceso general | Best. Otras | Intel. Intel. |
| Arlo juridiko eta kontratazio arloko arduraduna Responsable área jurídica y de contratación | A1 | 1 | 1 | | 1 | | |
| Ekonomia arloko arduraduna Responsable área económica | A1 | 1 | 1 | 1 | | | |
| Erizain asistentziala/Erizain koordinatzailea Enfermera/o asistencial/ Coordinador/a de enfermería | A2 | 1 | 1 | 1 | | | |
| Erizaina/Teknikari sozio sanitarioa/Egoitzako EDU Enfermera/o/Técnica-a sociosanitaria/o/DUE residencia | A2 | 4 | 4 | 4 | | | |
| Hirugarren Adinekoen Zentroen Arduraduna Responsable centros de la tercera edad | A2 | 1 | 1 | 1 | | | |
| Administraria Administrativa/o | C1 | 2 | 2 | 2 | | | |
| Administrari laguntzailea Auxiliar administrativa/o | C2 | 1 | 1 | 1 | | | |
| Sukaldaria Cocinera/o | C2 | 1 | 0 | 1 | | | |
| Sukaldari laguntzailea Cocinera/o ayudante | C2 | 1 | 1 | 1 | | | |
| Zaintzailea/Egoitzako laguntzailea/Klinika laguntzailea/Osasun laguntzailea Cuidador-a/Auxiliar de residencia/Auxiliar de clínica/Auxiliar sanitario/a | C2 | 7 | 7 | 7 | | | |

| *Plaza* | *Taldea/Azpitaldea Grupo/Subgrupo* | *Guztira Total* | *Derrigorrezko H.E. duten plaza kopurua N.º de plazas con P.L. preceptivo* | *Lehiaketa Concurso* | *Lehiaketa-oposizioa Concurso-oposición* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | *Txanda librea Turno libre* | *Txanda librea Turno libre* | | |
| | | | | *Izaera orokorra Acceso general* | *Izaera orokorra Acceso general* | *Desgait. gordeak Reserva disc.* | |
| | | | | | | *Best. Otras* | *Intel. Intel.* |
| Garbitzailea/Garbitzaile-zerbitzaria Limpiador/a/limpiador/a-camarero/a | E | 1 | 0 | 1 | | | |
| Sukaldari laguntzailea Ayudante/a cocina | E | 1 | 0 | 1 | | | |
| Zeladorea Celador/a | E | 2 | 0 | 2 | | | |